

2020-2021 IKASTURTE HASIERA

Familia agurgarria,

2020-2021 ikasturtea hastear dago, eta idatzi honen bidez ikasturte hasierarako baliagarria izango zaizuen gutxieneko informazioa helarazi nahi dizuegu.

Covid-19ak sortu duen pandemiaren ondorioz, Kontingentzia Plana prestatu behar izan dugu. Orri honetan duzuen informazioa plan horren zati bat besterik ez da. Bere osotasunean behin OOGk onartzean bidaliko dizuegu.

Dakizuen bezala, irailaren 7an emango diogu hasiera ikasturteari, eta urria bitartean jardunaldi jarraia izango dugu, goizeko jardunaldia, alegia.

Sarrerak, irteerak, jolasgaraiak, moldatu behar izan ditugu, ikasleak gelaz gela bildu beharko ditugulako, eta beste gelakoekin edo taldekoekin ahalik eta kontaktu gutxien izan beharko dutelako.

Bizikidetza talde edo nukleo egonkorak sortu behar izan ditugu, kasu positiboak izanez gero, kontaktuen jarraipena erraztu ahal izateko.

Hori dela eta Sarrerak eta Irteerak mailakatu ditugu eta Elkarguneak sortu. Jarraian, zein prozedura erabiliko dugun azalduko dizuegu.

- **Maskararen erabilera:** maskara nahitaezkoa izango da LH1go mailatik LH6. maila arteko ikasleentzat. HHko ikasleek ez dute maskararik eramango. Hauen kasuan gomendagarria da, baina ez derrigorrezkoa. Irakasle guztiok derrigorrez jantzi beharko dugu maskara.
- **Maila bakoitzak Elkargune bat izango du,** eta bertan gela bakoitzak bere espazioa izango du. Ikaslea, eskolara iristean, Elkargune horretara abiatu beharko da.

- **Elkargunean irakaslea egongo da**, eta berarekin elkartu beharko da. Goizeko 9:00etan eta arratsaldeko 14.30etan berdin jokatu dugu.
- **Sarrera txandaka egingo dugu**, gela baten eta bestearen artean tarte bat utziz, eta sarreran jarri ditugun gel-banatzailaetan eskuak garbitu eta gero, gelara abiatuko gara.
- **Puntualitatea garrantzitsua da**, eta aurten zer esanik ez. Beraz, ordutegiarekin zorrotzak izateko eskatu nahi dizuegu. Goizegi etortzea ere ez da komeni.
- **Irteera ere txandaka eta modu ordenatuan egingo dugu**, eta ikasleak mailaka eta gelaz gela aterako dira. Elkarguneetara abiatuko dira eta gurasoak Elkargune horietan egon beharko dute zain, hau da, bere semea edo alabaren gelako elkargunean edo espazioan.
- Hala ere, eta ahal den neurrian, **ikasleak eskolara beraiek bakarrik etorri daitezzen eskatu nahi dizuegu**, jende pilaketarik ez sortzeko. HHko ikasleekin eta LHko txikienekin oso zaila izango da, edo ezinezkoa. Beraz, lagunduta etorri behar badira, laguntzaile bakar batekin etorri daitezela komeni da, eta beti Elkargunera abiatu beharko dira. Eskola hesitik barrura ekidin beharko dugu beste gelakideekin elkartzea.

Arau hauek bete ahal izateko denon arteko elkarlana ezinbestekoa izango da.

Jarraian Elkarguneen eta Sarrera-Irteeren kokapena duzue.

ELKARGUNEAK. SARRERAK ETA

IRTEERAK

SAGARBIDE

LH 6.maila



LH5. maila



LH 4.maila



LH 3. maila



LH 2. maila



AITA MARI

HH2A-HH2C taldeak

Eroski aldeko ate txikitik eskolara sartuko dira.



Aterpeko obrak hasiko balira beste aldeko atetik sartuko dira.



HH2B taldea

A3ko atetik eskolara eta ezkerreko sarreratik eskola barrura.



HH3

Sarrera



Elkargunea



HH4.

Sarrera



Elkargunea



HH5

Sarrera



Elkargunea



LH1 maila

Sarrera



Elkargunea

